



**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

**Bakioko Udala**

**Alkateordea jarduneko alkatea izendatzea (Iragarkia 2017-12-04 Bakio)**

Amets Jauregizar Baraiazarrak, Bakioko Udaleko alkate andreak, abenduaren 7ko 381/2017 zenbakia Dekretuaren bidez, erabagi hau hartu dau: Amatasuna dala-eta alkate andre honek, 2017ko abenduaren 11tik eta alta hartu arte, M.<sup>a</sup> Isabel Barturen Lasa alkateordea izendatzen dau epe horretan alkate karguari jagokozan zereginetan jardun daian. Izan be, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluko 1go atalean azaltzen diranak izango dira jarduneko alkatearen eskumenak, bai eta gainontzeko arautegiak alkateari emoten deutozan eskumenak be.

Dekretu honek 2017ko abenduaren 11n hasita iraungo dau indarrean.

Hori guztiori Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Erregalamentuaren 47. artikulua araber.

Bakion, 2017ko abenduaren 12an.—Jarduneko alkatea, María Isabel Barturen Lasa